

Aretxagazeta

Internet: www.saretxo.es/aretxagazeta
e-mail: aretxagazeta@saretxo.es

Aretxabaleta • 1998ko urtarrilak 22 • 137. zka.



Beherapenetan

dendarik denda

Pausoka haur eskolak...

1998-99 ikasturterako izena emateko epea zabalitzen du

Otsailaren 9tik 20ra,
6etatik 7etara bitartean
Pausokan



Euskaraz hazi eta hezi

- Orik 3 urtera bitarteko haurrak talde egokituetan
- Ordutegi zabala:
 - Goizeko 7,30etatik arratsaldeko 6ak arte
 - Ordutegia moldatzeko aukera
- Jangela zerbitzuak:
 - Gosaria: bertan gertatutako janaria
 - Bazkaria: haur bakoitzari egokitutako dieta
 - Askaria
- Logela
- Ikasturtea iraila eta uztaila barne

Zer egin behar da Aretxagazeta etxean jasotzeko?



Deitu 79 01 05 telefono zenbakira, edo...
 ... aldameneko txartela 151 postakutxatilara bidali edo...
 ... kultur etxean dagoen buzoian edo herriko komertziotan utzi: Eroski, okindegiak, aldizkari dendetan, etabar.

urtean 1.500 pezetagatik

IZEN-ABIZENAK:.....

HELBIDEA:.....

TELEFONOA:.....

KUTXA:.....

ZBA (20 digito):.....

Gogoratu auzo, baserri eta munduko edozein txokotara ere bidaltzen dugula.

Baduzu beherapenetan erosteko ohiturarik?

Paula Ruiz
(Etxekoandrea)

Beharra dudanean erosten dut eta beherapenetan erosten badut hobeto.

Aurten gizonari alkandora bat eraman diot ikusteko.



Oihane Agirre
(Langilea)

Batzutan erosi izan dut, eropak batez be. Normalean ez dut beherapenetara itxoiten baina begiratu egiten dut. Askotan ez da aurretik begiratuta daukazuna egoten.




Felix Iglesias
(Langilea)

Bai, erosten dut beherapenetan. Aurten oraindik ez dut ezer erosi baina badaukagu joateko asmoa.



Juan Telmo Barandiaran
(Langilea)

Beharra dudanean erosten dut. Ez naiz beherapenetara itxoiten egoten.



e s k u t i t z a



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

“Hitz Egin”-en aurkezpena

Kaixo lagun, Egin egunkaria eta irratia azkenengo urteetan jasan dituen eraso instituzional eta ekonomikoei aurre egiteko “Hitz Egin” plataforma jaio da.

“Hitz Egin”-en helburua Egin-i babesa emango dion ingurune sozial bat lortzea da, Egin-en adierazpen askatasuna aldarrikatuz.

Hori dela eta, Atxabaltako eginzale batzuk elkartu eta Atxabaltako “Hitz Egin” komitea eratu dugu Euskal Herriko beste herri batzuetan gertatzen ari den bezala.

Aurkezpen moduan bileratxo bat prestatu dugu datorren urtarrilak 23rako. Bertan Egin-en ibilbidea eta egoeraren balantze txiki bat izango da, komunikabideen artean duen garrantziaz jabetzeko. Azkenik zuen esateko edo galdeztzekoak botarik bilera bukatutzat emango da.

Esan beharrik ez dago bilera honetara etortzeko animatzen zaituztegu gaiak duen garrantziaz jabetuta. Besterik gabe, aurrez eskerrak zuen harretagatik.

ARETXABALETAKO “HITZ EGIN” KOMITEA

Aretxabaletako alkateari

Aretxabaletako Udalak egin zuen azken plenoan, HBk Kepa Urrak Guardia Zibilen torturak jasan izana salatzen zuen mozioa aurkeztu zuen.

Aretxabaletako PSE-EE botazioan abstenitu egin bazen ere, gertaera hau salatzen du, beti tortura praktiken aurka azaldu delako eta bereziki bizitzeko eskubidearen alde.

Partidu sozialistarentzat, giza eskubideak fundamentua eta esperantza dira. Oraindik ere gizon-emakumeen errespetua, tolerantza eta elkar ulertzeak nagusi diren gizartean sinesten dugu. Horregatik lanean ari gara eta jarraituko dugu.

Modu honetan, gure gaitzespena aurkezten dugu Kepa Urrak sufritutako torturengatik baina era berean biolentzia ekintza guztiak salatzen ditugu. HBri biolentziak nora eramaten duen erreflexionatzera dei egiten diogu, bake mezua bidaliz, tortura gabeko Euskadi baten alde, baina baita arma, bomba eta kaleko biolentzia gabekoa.

IÑAKI PIERRUGUES

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, **Erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Publizitate arduraduna:** Amaia Gaztañaga. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroiabe, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Josu Urkia, Inma Miguel, Aitor Antxia, Iñaki Urreta, Loramendi E. E., Udala, Euskalgatia. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609. **Internet:** www.saretxo.es/aretxagazeta **e-mail:** aretxagazeta@saretxo.es Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

KPIaren igoera izan dute aurtengo tasa eta zergek

Ordenantza fiskalek %2ko igoera izan dute orokorrean

98ko tasa eta zergek %2ko igoera izan dute orokorrean, hau da KPIaren igoera. Esan beharra dago, inguruko herrietan igoera haundiagoa izan dela eta ondorioz Udaleko tasa eta zergak bajuago mantentzen direla. Ondoren zehazten dira tasa eta zergek izan dituzten aldaketa aipagarrienak.

Udaleko zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu beharreko tasak, zaborraren kasuan, hileko kuota 466 pezetakoa izango da.

Edateko urari dagokionez, honek, gutxiengo ur kontsumoaren kasuan (30 m³) 70 pta.ko kostua izango du; hortik gora gastatutako metro kubiko bakoitzaren prezioa 110 ptakoa izango da.

Kiroldegiko tarifak

Kiroldegiko tarifek ere prezio berriak dituzte. Horrela, familiariko

urteko abonua normala 14.300 ptakoa da. Bakarkako kasuan, berriz, jubilatuek: 3.100 pta; 25 urtetik gorakoek: 10.600 pta; 18tik 25 urte bitartekoek: 6.800 pta; 14tik 18 urte bitartekoek 4.300 pta eta 6tik 14 urtera bitartekoek 2.100 pta. ordaindu beharko dute. Haez gain, langabetuentzat 3.700 ptakoa da urteko tarifa eta elbarritu fisiko nahiz psikikoentzat 2.100 ptakoa. Kontutan izan behar aurrean aipatutako tarifen prezioak Aretxabaletan bizi direnentzat direla, tarifak desberdinak dira kanpoan bizi direnentzat.

Bukatzeko, Urats-gain zaharren egoitzako tarifak honakoak dira: Aretxabaletan bizi diren hirugarren adinekoak: 72.300 pta hileko eta elbarrituen kasuan 84.360 pta. Kasu honetan ere, kanpotarrentzat tarifak garestiagoak dira.

Lapurreta ugari

Urtarrilaren 9ko gauean lapurretak gertatu ziren herriko lau komertziotan: Zارايا taberna, Brikolan ferreteria, J.J. Irure fontaneria eta Ebaki ileapaindegian. Ertzantzak A.M. eta J. V. 18 eta 20 urtekoak eta 16 eta 17 urteko lau barakaldoar atxilotu zituen Eibarren ihesi zihoazela. Lau gazteak kristalak apurtu ondoren sartu ziren komertziotara, 175.000 pta inguru eta ONCEko 60 kupoi lapurtu zituzten. Gazteak Eibarko epaitegitik pasatu ondoren epaileak Martuteneko gartzelan sartzea erabaki zuen.

Ehizatutako erbi eta untxiak kaltegarri

Valladoliden ehizatutako erbi eta untxiekin kontaktuan egotearen ondorioz, azken hilabete honetan makina bat pertsona ospitaleratu da. Hainbat komunikabideetan entzun denez, atxabaltar bat ere hauen artean dago, baina oraindik ziurtatu barik dago gaixotasun horregatik kutsatua dagoen ala ez. Analsiak egin zaizkion arren, oraindik ez da erantzuna baieztatu. Bestalde, erbi edo untxiren bat ehizatu duenari, zakar ontzira ez botatzea eskatzen zaio, bestela, bai sagu, kaleko katu eta bai beste animaliak ere gaixotu daitezke eta. Honi irtenbide bat aurkitu asmoz, Osakidetza beraien kargu egingo da; beraz bertara zuzendu.

Mus txapelketa

Uratz-Alde elkartean Mus txapelketa jokatu berri dute. Txapeldunak argazkian trofeo eta txapelarekin dauden Jose Angel Oyanguren eta Angel Martinez izan dira. Finala jokatu eta bigarren gelditu direnak, berriz, Alberto Martin eta Isidro Calvo. Zorionak guztiei.





Emakumeak ere etorriko dira oraingo honetan

Gujerat-eko indioek Aretxabaleta bisitatuko dute otsailean

Datorren otsailean Adivasi talde batekin etorriko da Inazio Galdos Aretxabaletara

Datorren hilean, Inazio Galdos Aretxabaletan izango da adivasi talde baten laguntzarekin. Euskal Gobernuaren gonbidapenarekin, "Asia-Euskadi" eguna ospatzera etorriko dira.

Orain dela urte batzuk ere, hemen izan zen Galdos eta indiako lagun talde bat ere. Aurreko udan, Inazio bera ere etorri zen, baina kasu honetan bakarrik. Otsailean aldiz, adivasi talde bat ere etorriko da, oraingo honetan, aurrekoetan ez

bezala, emakumeak ere etorriko ei dira.

UNAI-ko hainbat berri

Aipatzekoa da, UNAI-en Aretxabaletako dirulaguntzarekin eraikitako 12 haurtzaindegiak, gaur egun 46 izatera heldu direla, beste herriskatan ere zabaldu direlarik. Honen ondorioz, haurrek txikitatik eskolara joateko ohitura hartzen dute, honela beraien etorkizunerako hezkuntza ziurtatuz.

Orain sei urte hasitako "nekazal iraultza", bai adivasi en lurraldeetan baita beraien pentsakeran ere sustraitzen ari da; honela, beraien ahaleginari esker sozialki eta ekonomikoki lur jota zegoen gizartea pixkanaka altxatzen ari da.

300 hektarea baino gehiagoko lurraldeetan arrozaren hektareako 3000 Kg. izatetik 8400 izatera pasa da. Honez gain, kainaberaz eta gariz landatutako lurrek ere oso itxura oparoa erakusten dute. Fruta arbolak ere landatu dituzte, eta jadanik, ur putzuek ere beraien helburua modu bikainean betetzen dute.

Anbulantzia

Aretxabaletan jasotako dirulaguntzarekin, ambulanzia bat ere erosi da eta adierazi duten bezala, laguntza handia suposatzen du beraiantzat. Honen adibide da abenduaren 22an Bardipadan gertatutakoa: "40 urteko emakume bati, Singiri, idi baten erasoan jasan ondoren, urdaila zulatu zitzaion, barruko ezteak atereaz. 39 Km-tara dagoen Vansda eritetxera eraman zuten, eta 3 ordu eta erdiko ebakuntzaren ondoren onik atera zen. Sendagileak, eritetxera ordu erdi beranduago helduz gero hil egingo zela ziurtatu zuen".

Amaitzeko, hona hemen Inazio Galdos-en esaldi bat: "Elkartasun bidean batera ibili gara, orain ilusioz eta esperantzaz gainezka dauden Gujerat-eko behartsu hauekin batera".

Holiday zirkoa

Joan den urtarrilaren 20 eta 21ean, Holiday zirkoa izan zen Atxabaltan. Eguneko saio bana antolatu zuen errioxar talde honek; kokodriloak, tigreak, zaldiak, pailasoak eta beste hamaika ikuskizun eskeiniz.

Zirkoak gero eta indar gutxiago duen arren, eskeinitako saioetara atxabaltar ugari gerturatu zen.




Tanbor hotsa herrian

Urtarrilaren 20an San Sebastian eguna zela eta, tanbor-hotsez bete

ziren herriko kaleak.

Goizeko 10:45etan Pausoka haurtzaindegiak hasiera eman zion tanborradari, ordubete beranduago erreleboa Kurtzebarri eskolari emanaz. Santa Rita ikastetxeak aldiz, arratsaldeko 4:30etarako utzi zuen bere saioa.

Amantala soinean, sukaldari txapela buruan eta tanborra eskutan zutela, ederto asko pasa zuten herriko umeek.



Aurpegi ezagunak ikusi ziren batzokiaren inaugurazio ekitaldian

Batzokia berriz ere inauguratuta

Urtarrilaren 18an, batzokiaren bigarren inaugurazioa ospatu zen. Gonbidatu nagusi bezala Arzallus egon bazen ere, beste hainbat aurpegi ezagun ikusteko aukera ere izan zen, Egibar eta Eli Galdos horien artean.

Aretxabaletako txistulariek eskainitako ongi-etorria jaso ondoren, batzokia ezagutu ahal izan zuten. Egia esan, kanpotik ez zuen batere itxura txukuna eraikuntzak, zapatutik domekara arteko gauean ezezagun batzuk batzokiko hormak margotu zituzten eta.

Ondoren, eguerdiko 12:00ak aldera Arzallus-ek eskainitako mitina izan zen Zaraia zineman, jarraitzaile ugari elkartu zen bertan. Honen amaieran, 65 lagunek Taberna Berrin bazkari goxoa dastatzeko aukera izan zuten.



Domeka goizean margotuta agertu zen batzokia

Plenoa datorren astelehenean

Datorren astelehenean, hilak 26, plenoa izango da udaletxean arratsaldeko 6etan. Bost-sei gai jorratuko dira bertan, horien artean: Jose Lonbide lurperatzailea izendatuko da; abokatu eta prokuradorearen izendapena Galartzako dorretxearen

auziagatik; 22B eta 22C zonaldearen planeamenduaren behin-behineko onarpena eta El izeneko hitzarmenaren onarpena (kirola ikastetxeetan bultzatzeko hitzarmenaren onarpena). Gai hauez gain beste batzuk ere sor daitezke.

Hirigintza teknikari lanpostua

Aretxabaletako Udalak hirigintza teknikari lanpostua kaleratu du. Urtarrilaren 9an oinarriak argitaratu ziren eta instantziak aurkezteko epea hilak 29rarte dago zabalik. Bertan, besteak beste, burututako ikasketak, DNIren fotokopia, meritoak eta guztien agiriak aurkeztu beharko dira.

Oinarrietan aldaketak

Lanpostua lehenago ere kaleratu zen arren, aldaketa batzuk eman dira oinarrietan. Oraingo oinarrietan erdi mailako titulazioa eskatzen da eta aurrekoan insumisoak kanpo gelditzen baziren ere, orain ez da gai horren inguruko aipamenik egiten.

Santa Ageda mutilak

Jadanik hasi dira 79an jaiotako Santa Ageda mutilak banakoa entsaiatzen. Astelehen, asteazken eta ostiraletan gogoz praktikatzen dute, aurreko urteetako maila behintzat mantendu edo gainditu asmoz.

Aurten 45 lagun elkartu dira, ohiturari jarraituz, otsailaren 4an baserri-baserri kantuan arituko direnak. Ondoren, otsailaren 5ean Santa Ageda egunean, aurrez entsaiatutako guztia plazan aurkeztuko dute; Ihauteri eguneraino, hilak 22, domekero-domekero ikusi ahal izango ditugu.



Zubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

- ◆ Komunerako altzari eta manparak
- ◆ Ispiludun armairu aurrealdeak
- ◆ Beirate artistikoak
- ◆ Salarako mahaiaik

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
ARETXABALETA

Loramendi literatur lehiaketako sariak gaur eman dira jakitera

Danera 177 idatzizko lan aurkeztu dira, grabaketak, berriz, 40

Gaur banatu dira IX. Loramendi literatur lehiaketako sariak Loramendi elkartearen Aurtengo edizio honek bi atal izan ditu: lehen hezkuntzari begira ipuina eta poesia eta DBHrako ipuin, kantu, kontu zahar, etabarren grabazio lehiaketa. Danera 177 lan izan dira idatzizkoak eta 40, berriz, grabaketa lanak. Gainera esan daiteke, txikienak izan direla lan gehien aurkeztu dituztenak, kasu honetan, L.H.ko D ereduan 88 lan jaso dira.



LEHEN HEZKUNTZA

L.H. 2. zikloa: Murgiltze eredu:

1. saria: ----
2. saria: Miriam Vidriles "Anen ametsak"
3. saria: Asier Gimbert "Pinguino txiki baten abentura"

L.H. 2. zikloa: D eredu

1. saria: Ainara Bordes "Bigarren telebista mota"
2. saria: Katalin Antxia eta Maitane Agala "Tronpa gabeko elefantea"
3. saria: Antxon Isasi-Isasmendi "Tomen ranpa maitea"

L.H. 3. zikloa: Murgiltze eredu

1. saria: "Begoren ametsa" (Izena ez dakigu)
2. saria: Alicia Rodrigez "Errege maiteak"
3. saria: "Formula magikoa" (Izena ez dakigu)

L.H. 3. zikloa: D eredu

1. saria: Zorione Herrasti "Urkuluko lamia"
2. saria: Ane Remedios "Lehoia eta tximua"
3. saria: Nahia Errasti "Txominen hiru gurariak"

DERRIGORREZKO BIGARREN HEZKUNTZA

D.B.H. 1. zikloa

1. saria: Mainer Otaegi "Kontu zaharrak"
2. saria: Irati Urkia "Ugasteiar"
3. saria: Ander Zubizarreta "Ogibide eta pasadizuak"

D.B. H. 2. zikloa

1. saria: Nagore Agirre "Petraren kontuak"
2. saria: Nerea Arana "Aitona kontatu zerbait"
3. saria: Arantzazu Arietaleanizbeaskoa "Miguel San Juanekin hizketan"

Grabaketetan kalitate handia

Loramendiko arduraduna den Jon Ander Loidiren berbetan, "aurkeztutako lan kopurua handia izan da eta lan onak aurkeztu dira orokorrean". Bestalde, aurtengo lehiaketan berrikuntza izan den grabaketa lanen inguruan oso iritzi baikorra azaldu du, "grabaketa oso kalitate ona egon da eta ondo landutako lanak aurkeztu dira". Bukatzeko, lanak herriko euskalkia berreskuratzeko benetan lagungarri izango direla gaineratu du.

ARGAZKI

Urkiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

GARBITU S.
COOP.

*Garbiketa
orokorrak*

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Pelikularik hoberenak

**DON
BIDEO**

Lezama Merkatal
zentrua
ARETXABALETA

IBARRA

ESTANKOA



Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Berbari

Merkatari eta elkarteen euskararekiko konpromesua

Berbari Atxabaltako elkarte, entitate eta merkatarien eguneroko jardunean euskararen erabilera bultzatzeko eta indartzeko ekimena 1995ean jarri zen martxan. Lehenengo fase batean, kultur, kirol, aisialdi eta giza elkarteekin hasi zen lanean. 1997tik, bigarren fasea lantzen etorri da merkatariekin. Elkarte, entitate eta merkatarari bakoitzaren konpromesua auto-inplikazioan eta elkarlanean oinarriturik dago.

Euskararen normalizazioa helburu

Berbariko teknikaria den Amaia Ugartemendiaren azalpenetan, euskararen normalizazioaren aldeko apustua esparru guztietatik jorratu nahi da: elkarte, merkataritza, administratitza eta lanean euskara erabiliz. Bere iritziz, "euskaraz bizitzeko egindako ahalegin guztiak alperak dira egunerokotasunean erabiltzen ez bada: administrazioan, hezkuntzan, aisialdian, merkatuan, lan munduan, etabar". Horregatik eguneroko bizitzan elkarteek eta

ESKEINTZA

SANDWICH

URDAIAZPIKO

EGOSIA

(YORK COCIDO SANDWICH)

100 gr.

59 pzta

Merkatariekin egiten den lanetako bat kartel hauek euskeraz egitea da

merkataritzak duten garrantzia kontutan hartu da, batez ere, "Atxabaltako bizitza sozio-kulturealean elkarteek garrantzi handia dutelako eta elkarteetan euskaldunak nagusi izanik, honek emaitza onak lortzeko esperantzak ematen dituelako". Baita, merkataritzari dagokionez, euren zerbitzuak hobetzearen aldeko

apustuak herriaren onura ere ekar dezakeelako gainera errespetatu eta zaindu egingo lituzkete.

Hainbat datu

Atxabaltar gehienok euskara ezagutu arren (%70) eta euskararen alde gaudela aitortu arren, %45k bakarrik erabiltzen du euskara eguneroko bizitzan.

Bestalde, jakin behar da 22 urtez azpiko Atxabaltar guztiak euskara ulertzeko gai direla eta etorkizunean euskaraz bizitzeko arazorik ez luketela izan behar. Hau kontutan izanik, Atxabaltarron berbiari hiru oinarri nagusi gehitu behar zaizkio: alde batetik, ezagutza, geure berbia ezagutzen ez badugu ezingo dugulako erabili; bigarrenik, erabilera, berbia erabiltzen ez badugu galdu egingo delako eta azkenik, hizkuntzarekiko lotura, berbia estimatuz gero ikasi eta erabili egingo dugulako.

Azkenik, herritar bakoitza hizkuntzaren berreskuratze modernotze eta zabalkuntzaren prozesuan protagonista zuzena da.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

OPEL



Zerbitzu Ofiziala

- *Kotxe marka guztien konponketak*
- *Zerbitzu guztiak*

Basabe Poligonoa, A-1-3 •
Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 /
Fax: 77 17 20
ARETXABALETA



Jon Zuazabeitia

ENHE sindikatuko abeltzaintzako koordinatzailea

Hego Euskal Herriko EHNE sindikatuko abeltzaintza alorra koordinatzen du Jon Zuazabeitiak. Baserria eta baserritarrak defenditzeko makina bat borroka egiten dihardu, orain hiru urte sindikatuan sartu zenetik.

- Zein da EHNE sindikatuaren helburua eta zeregina?


- EHNE sindikatua baserria eta baserritarrak defendatzeko dago, honek suposatzen du ahalik eta baserri gehien indarrean mantentzeko, formazio arloa sakontzea, baserritarren bizi kalitatea eta baserriko produkzioa hobetzea eta errenten aldeko borroka sindikalean jardutea. Konkretuago, batetik, baserritarren lan egoera, prezioen defentsa, esnea, okela etabarren aldeko borroka dinamika eta bestetik, zerbitzuak eskaintzea: juridikoa, aseguruak, aholkularitza, proiektuak, eraikuntzak, etabar.

- Zein da zure zeregina sindikatuan?

- Abeltzaintza alorra koordinatzen dut; sektore desberdinak dinamizatu, nekazaritza politikarako proposamenak joratu, etabar. Honez gain, Ministeritza, Jaurkitaritza, Industria eta Estatu zein Europako beste sindikatuekin hartu-eman zuzenak izaten ditut.

- EHNE sindikatuaren nekazaritza politikari dagokionez, zein ildo jarraitzen du?

- Laguntzetatik baino prezioetatik bizitzeko eskubidea bermatuko duen nekazaritza politika alternatiborantz jo nahi dugu, produktibismoari aurre eginez. Orain artean esne sektorean formazioa kantitate legearen arabera zuzendu da, hau da, gero eta gehiago produzitu hobe. Gehiago produzitzeak ez du zertan errenta gehiago eman behar. Badaude produzitzeko



“Europak jarraitzen duen dinamikaren arabera, errekonbertsioaren bidetik haundiak indartu egin dira, txiki eta ertainen kaltetan”

moduak, askotan gutxiago produzi-tuaz errenta bera edo hobea lortzeko.

- Europako politikak zein eragin dauka Euskal Herrian?

- European kokatuta gaudenez, Europaren eragina haundia eta zuzena izan da. Europak jarraitzen duen dinamikaren arabera, ustiategi haundiak indartu egin dira, txiki eta ertainen kaltetan. Europarekin konparatuz, hemengo produkzioa oso txikia da. 2000. urtetik aurrera

erreforma bat egongo da Europa mailan eta orain arteko planteamenduak helburu merkantilista edo ekonomista baino ez dute.

- Lehen sektorean produkzioa asko desagertu da azken urteotan. Instituzioetatik ematen diren laguntzek zein neurritan konpontzen dute arazoa?

- Azken urteotan lehen sektoreko produktuen prezioa asko jeitsi da, laguntzak funtsezkoak bihurtuz. Baserritarren errentaren neurri haundi bat laguntzetatik dator, eta hori baserritarrak berak ere ez du nahi. Sindikatuak egiten den lanetik bizitzea eskatzen du, eta egindako lanaren emaitzak izan dezala behar den prezioa.

Merkatuan egindako lana ez da baloratzen, kilo bat esne ekoizteko egin den lana, baserritarrak oporrak hartzeko eskubideak, etabar. Gaur egun, laguntza barik ezinezkoa da aurrera egitea, hala ere, laguntzek ez dute arazoa konpontzen, egoera erabat larritu baino.

- Gure bailaran nola ikusten duzu baserria, eta hortan lan egin nahi duen gazteei zer esango zenieke?

- Industriak indar haundia izan du gure bailaran, baina hor daude tinko mantentitu eta jator lan egiten duten baserriak. Langabezia ere badago eta baita baserri mundutik bizi nahi izango luketen gazteak ere. Egoera ikusita, ostera, gazteak ez dira lehengo sektorean lan egitera animatzen. Baina ondo pentsatu eta laguntza izan ezkerreko proiektuak aurrera atera daitezke. Mundu desberdina eta aberasgarria dela uste dut.

- Eta bukatzeko Jon, galdera pertsonal bat, zer egiten du kaltetar batek baserritarren sindikatuan?

- Gustora egon eta lana ahalik eta ondoen egiten ahalegindu baserritarren defentsarako.



Urtarril, ondo jantzi eta gosez hil

“Dena dela, pasa al zaigu burutik urtarrileko aldapa (gora zein behera) urte osoa dela munduko hamaika lekutan?”

Urtarrila hilabete aldapatsua da; hala erakutsi digute behintzat. Urtean zehar ganoraz jan eta edan izan ez bagenu bezala, Gabonak iritsi orduko hasi ginen tripa ondo betetzen, aldapa-garaia erreserbekin hasteko, antza. Eta Errege-biharamonean etxe gehienetako menuan ez ziren patata gutxidun porru-patacak faltako, hori seguru. Martxan daude urteroko argaltzeko dietak, inauteri arteko “garizuma” partikularra batzuentzat, “ramadama” besteentzat, Urkulura makina bat buelta,... gure jaingo partikularri, gorputzari hain zuzen ere, hainbeste zor diogu-eta.

Eta, egia esan, gorputza garbitzeko eta norbera hobeto sentitzeko bada, gaitzerdi; baina, ez al da neurri batean gizarteak bestetara buelta gaitezen nahi duelako? *Janari-edari-oparitan nahikoa gastatu duzu. Orain beherapen-garaia dator. Zure buruak ere mereziko du hilabete hau eramangarriago egingo duen kapritxoa, ala?* Kuriooa, benetan. Estu eta larri ibiltzea “tokatzen” zaigun

ditxosozko hilabete honetan ez da alerik sartzen arropa-dendetan. Kuriooa hau ere. Noski, merkeago eskuratuko ditugu hain beharrezko ditugun fraka horiek, ondokoarekin haserretu behar badugu ere, hark guk bezala beharko ditu-eta, derrigor, negua itxuroso pasatzeko. Aldapa beherako produktuak askotan aldapa gora garaian!

Dena dela, pasa al zaigu burutik urtarrileko aldapa (gora zein behera) urte osoa dela munduko hamaika lekutan? Halabeharrez egiten dutela errejimena, ia zer janik ez dutelako? Eta beherapenetatik bizi direla, guk aspaldi beherapenetan erositako sobranteekin estaltzen dutela gorputza? Gure gehiegikeria guztien ajek haientzat direla pentsatzen hasi eta... baina berandu konturatu gara aurten ere, gu aldapa (gora, noski) jasaten ari garenean... eta gustuko frakak erosi ditugunean! Datorren urtean beharko du.

Hori bai, beherapenetarako edo biomanan-sobreetarako gorde dugu diru apurren bat, badaezpada.

MIRIAM URKIA

**OSKAR
GARAJEA**

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

**ARETXABALETA
ITURGINTZA**

Durana, 16-Tfnoa: 79 17 53
ARETXABALETA

**PAGALDAI
Opari denda**

Durana, 33 ☎ 79 10 14
ARETXABALETA

BITXITEGIA

**MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA**

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrealdean
Tfnoa: 77 13 57

Beherapenak aldapan gora

Urtarrileko aldaparekin batera hasi ziren beherapen ofizialak.

Dendariak diotenez orain urte batzuk baino dexente gutxiago saltzen da gaur egun eta garai bateko iladak desagertuta daude jadanik.

Dendari askorentzat beherapen legeak ez du zentzu haundirik. Agian legea beste modu batean planteatu beharko zela diote gehienek.

Urtarrilaren 7an hasita gure herriko eta inguruetakodendak "beherapen" hitzaz apaindurik daude. Denda askotako eskaparateak kolore biziko iragarriekin bete dira, bezeroaren atentzioa deitu nahian edo. Bestalde, jendearen mugimendua antzematen den arren, ez ei da garai batekoa modukoa, ilada haundiak aspalditxo desagertu zirela diote komertziotako jabeek. Dena den, salbuespenak beti izaten dira, eta kasu honetan ere, herriko Asensio dendan iladak urtero egoten dira.

Generoa kentzea helburu

Merkataria eta bezeroa etekinik haundiena atera nahian dabilta sasoi honetan. Hala ere, Orencio Espeso Mari Karmen zapata dandakoak aipatu digunez, dendariaren nahia generoa kentzea izaten da, beherapenak ez baitira batere errentagarriak. Bere ustez, "garai bateko jendetza eta erosi

beharra desagertu egin da hein haundi batean eta jendeak gehiago erosten du beharra duenean". Honen inguruan adibide bat ere jarri digu, "lehen agian jendeak datorren urterako generoa beherapenetan erosten zuen, gaur egun, berriz, momentuko beharrari garrantzi gehiago ematen zaio".

Herriko beste komertzio batzutan ere, aurrean aipatutakoa azpimarratu digute. Beherapenetan ez dela batere errentagarritasunik lortzen eta alderantziz askotan prezio erdian jartzean galtzen irtetzen dela saltzailea. Beraz,

saltzaileak salmentari erretagarritasunik atera ez arren, stock-ean pilatutako generoa kentzea du helburu.

Beherapenak, saldoa eta likidazioa

Beherapenen sasoi ofiziala urtarrilaren 7an hasi bazen ere, komertzio askok promozio eta oferta bereziak lehenagotik jarrita zituzten. Horien artean Aitziber dendakoak gabonetako negozioa aprobetxatu asmoz prezio bereziak jarri zituen. Horregatik dendari

Beherapenetan ez da errentagarritasunik lortzen, dendariaren helburua generoa kentzea izaten da



Asensio dendan urtero egoten dira iladak

askok ez diote zentzu haundirik ikusten beherapenen legeari, urteko beste garai batzutan beste termino batzuk erabiltzen direlako, produktuen prezioak merketzeko.

Legeak dioenez, beherapenak tenporada aldaketetan egiten direnak dira, urtean birritan udan eta neguan hain zuzen ere. Negukoak urtarrilaren 7tik martxoaren 31ra bitartean egin daitezke eta udakoak, berriz, uztailaren 1etik irailaren 30era. Tarte horretan gehienez bi hilabete luzatu daitezke eta gutxienez astebeteko iraupena izan behar dute.

Iriarte dendakoen ustez, legeak seriotasuna ematen du eta gainera beherapenak jarri aurretik baimena eskatu behar izaten da Donostiako Merkataritza Ganbaran. Asensio dendako Maribel Lazpiurantzak legea betetzen da, "beherapen" hitza legeak arautzen duenean bakarrik erabiltzen delako, baina urteko beste garai batzutan beste termino batzuk erabiltzen dira oferta gisa".

Beherapen hitza alde batera utziaz, Udaleko kontsumitzaileen bulegoak gai honekin lotura duten beste bi hitzen esanahia ere adierazi digu: saldoak eta likidazioa.

Saldoak, erabiltzen ez diren



Beherapenek astebeteko iraupena gutxienez eta bi hilabetetako gehienez izan behar dute

KIUB, kontsumitzaileen informaziorako Udal bulegoak beherapenetarako eman dizkigun hainbat aholku

1- Erosterakoan beti tiketa edo faktura eskatu.

2- Erositako produktuaren kalitatea beherapenak hasi aurrekoa izan behar da.

3- Produktuaren kalitatea etiketak adierazten du, horregatik ez erosi etiketarik gabeko produktuak edo konpozizioa zehazten ez dutenak.

4- Ahal den neurrian prezioa beherapen aurrekoa baino

merkeagoa dela egiaztatu.

5- Artikuluek beren benetako prezioa izan behar dute saltzerako orduan.

6- Garantia eskatu.

7- Irregularitasunik antzemanaz gero, KIUB, kontsumitzaileen informaziorako Udal bulegora jo.

8- Eta guztiaren gainetik erosketarik egin aurretik, produktuaren beharraz ondo hausnartu.

produktuetan, modatik pasatuta daudenetan eta hondatuetan egiten dira. Gainera mota honetako salmentetan saltzaileak produktuak duen akatsaz informatu behar du bezeroa.

Likidazio hitza, berriz, negozioa itxi, aldatu edo kalteren bat gertatu denean erabili beharra dago.

Iruzurrak eta aholkuak

"Merkealdiak, ate beste maratil" esaera ezaguna da. Zoritxarrez, iruzurrak maiz gertatzen dira beherapen garaian: sasoirako produktu gehiago ekartzea, kalitate txarreko generoa saltzea, etiketa gabeko produktuak, etabar. kontsumitzaileen elkarteek beherapenen aurrean argi ibiltzeko aholkatzen dute.

Herriko dendariak adierazi dutenez, horrelako iruzurrak denda haundietan ematen dira batez ere baina ez komertzio txikietan.

Nolanahi ere, argi ibili beharra dago egun hauetan, eta horretarako adituek, erosketaren balorea neurtzea eta erosi aurretik beharrezko diren produktoak zeintzuk diren aztertzea aholkatzen dute. Era berean, produktoaren kalitatea exigitu behar da eta tiketa edo faktura eskatu, erreklamaziorik egin behar izanez gero. Bestalde, produktua aldatzeko dagoen aukeraz galdetzera ere ohitu beharra dago. Gainera beherapenetan beste edozein garaitan moduan produktuak akatsen bat izan ezker, hau aldatzeko aukera dagoela jakin behar du bezeroak.

Aholkuak aholku esaera zaharrrak dioen moduan: "Merkealdiak, ate beste maratil". Horregatik, beherapenetan erosi aurretik produktu horren beharraz ondo hausnartu.


Beharapenen inguruko iritzia ezagutu nahian, herriko lau dendarirekin izan gara. Denak ados daude beharapen legeak zentzu haundirik ez duela esatean. Era berean beharapenek garai bateko indarra galdu dutela uste dute.

**Miguel Angel
Gonzalez
Bergaretxe**

Mikelos jantzidendakoa

Beharapenak denda-ko generoa kentzeko ipintzen dira, ez da errentagarritasunik ateratzen eta garai haue-
tan generoa kentzea da garrantzitsuena.

Niri urteko generoa ahal den neurrian behintzat kentzea gustatzen zait, likidazioa egitea, modu honetan hurrengo urtean genero berria ekartzeko, horixe da nire filosofia. Horregatik, beharapenez gain,



urteko beste sasoi batzutan ere bestelako promozioak egiten ditut.

Beharapenetan jartzen dudana erropa, aurretik zegoena da, ez dut berririk ekartzen edo kentzen, esan dudana moduan niretzat dena saltzea baita garrantzitsuena.

Maribel Lazpiur

Asensio dendakoa

Guk hamabost egu-
netan jarri izan ohi di-
tugu beharapenak, nor-
malean otsailean. Be-
raz, oraindik ez dugu
beharapenik jarri.

Beharapenetan lehe-
nengo eguna izaten da
jende gehien etortzen

dena. Kopurua haundia
denean, hirunaka sar-
tzen dira bezeroak den-
dara, eta horregatik
kanpoan iladak sortzen
dira.

Neguko beharape-
nak dira guretzat ga-
rrantzitsuena, gure
kasuan asko saltzen
dugu. Beharapenetan
aurretik dagoen generoa
jartzen da, eta kalita-
tekoa gainera, ez da
berria ekartzen. Egia
esan, benefizio gutxi
ateratzen da sasoi haue-
tan, baina genero berria
ekartzeko lekua uzten
da.



**Mari Carmen
Herrero**

Aitziber dendakoa

Niretzako beharapen
legeak ez du zentzu
haundirik. Merkealdiak
beste edozein sasoi-
tan ere egin daitezkeelako,
beste hitz batzuk erabi-
liz. Gabonetan esaterako
prezio bereziak jarri

nituen eta orain ere
beharapen hori egiten
jarraitzen dut baina
orduan baino beharapen
haundiagoaz.

Egia da, beharape-
netan mugimendu gehia-
go dagoela gainontzeko
sasoi-
tan baino, baina hau
nabarmen jeitsi da.
Gainera azken hiru ur-
teetan eguraldiak ez du
asko lagundu salmentan.

Bestalde, behera-
penetan jartzen dudana
erropa, aurretik dagoena
da, ez da aldatzen eta
genero berria ekarri ere
ez.




Orencio Espeso

**Mari Karmen zapata
dendakoa**

Beharapenek ez dute
garai bateko indarra.
Gainera ia ez da benefi-
ziorik ateratzen eta ba-
tzutan galtzen ere irte-
tzen da saltzailea, pro-
duktua erdi prezioan
jartzen denean batez
ere.

Beharapen legeari
dagokionez, hobeto az-
tertu beharko litzate-
keela uste dut. Dendari
bakoitzak nahi duena
egiten duelako, eta
beharapenak, beste hitz
batzuk erabiliz, edozein
sasoi-
tan jartzen dire-
lako.



Bestalde, beharape-
netako iruzurren ingu-
ruan uste dut hauek ko-
mertzio haundietan
ematen direla batez ere.
Komertzio txikiak legea
errespetatzen dutela
pentsatzen dut, nire
kasuan behintzat lehen-
go produktu berdina
eta kalitate berekoak
jartzen ditut behera-
penetan.



UDAKo gazteenak gogor

Infantilak lehenak izan dira eskualdeko fasean

Bikain dabil Santiago Moralesek entrenatzen duen UDAKo talderik gazteena. Urtarrilaren 10ean eskualdeko lehen fasea bukatu ondoren, sailkapeneko lehen postua lortu dute eta ohorezko mailara igotzeko, igoerako liga jokatzeko, gertu daude orain.

Infantilen lehen talde honetan 12, 13 urte bitarteko hogeitun mutiko daude guztira. Iaz eskolarteko taldean ibili ondoren, aurreko taldea osatzeko jokalaririk falta zirenez, Arrasate, Eskoriatza eta Aretxabaletako jokalariekin osatu behar izan dute taldea. Talde ona sortu da Santiago Morales entrenatzailearen azalpenetan, ikusi besterik ez dago lortu duten emaitza.



UDAKo lehen mailako infantilak lehenak geratu dira eskualdeko lehen fasean



Santiago Moralesek bigarren urtea du entrenatzaile lanetan. Iaz eskolarteko taldea entrenatu zuen eta aurtengo denboraldian, berriz, infantilen lehen taldea.

Batzutan lan nekeza izan arren, poztasun uneak asko direla aitortu digu.

- Nola baloratuko zenuke orain arteko denboraldia?

Eskualdeko lehen fasea bukatu dugu eta oso ondo joan zaigu. Lehen fase honetan zortzi talde geunden eta lehenak gelditu gara. Partidu zail batzuk izan ditugun arren, orokorrean taldea oso ondo ibili da. Orain datorren urtean Ohorezko mailan jokatu ahal izateko igoerako fasea jokatuko dugu.

- Nola ikusten duzu Ohorezko mailara igotzeko aukera?

Esperantza haundiak ditut, gainontzeko taldeak kontutan hartuta uste dut aukera haundiak ditugula gora igotzeko, hala ere, gogor saiatu beharko dugu.

BENGOA URDAITEGIA


Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9
Tfnoa: 79 19 79

DOIKALSE

Elektroerosio lanak

Basabe Poligonoa C-1-1
Aretxabaleta
Tfno: 79 82 44



LOGOPEDIA ZENTRUA

Logopedia eta psikologia tratamendu kliniko eta hezitzaileak haur eta helduentzako.

Erdiko kale, 37-behea
Tel: 79 79 46
ARRASATE

T X I L A R R A



ELIKADURA BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABAleta



Lurrindegia Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

Mobiliario ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07
ARETXABAleta

Iker Arejolaleiba

“Denon gustoko ariketak egiten ditugu”

Hogeita bat urteko atxabaltar honek, orain sei urte ekin zion soinketa berezia praktikatzeari; poliki poliki kirolarekiko bere grina sendotuz.

• **Noiztik zabilta gimnasia, eta zein motako ariketak egiten dituzue?**

Orain dela lau bat urte hasi nintzen kiroletxean antolatzen diren saioetan parte hartzen. Egunero metodologia bera jarraitzen dugun arren, beroketak, estiramenduak, pelota, futbola, eskubaloia edo beste edozein kirol lantzen dugu. Denon gustoko ariketak egiten ditugu.

• **Nolatan hasi zinen ekintza honetan partehartzen?**


Soinketa bereziko klaseak antolatu zirenez, bertan hasi nintzen. Oso esperientzia ona izan zen, eta gainontzeko urteetan ere parte hartzeraz motibatu nau.

• **Astean zehar zenbat ordu egiten dituzu?**

Antolatutako saio hauek, astearte eta ostiraletan izaten dira, arratsaldeko 6etatik 6:45etara, hain zuzen ere. Baina bestalde, nire kontu ordu gehiago sartzen ditut, palan, pelotan eta orain Ramon Erañaren laguntzarekin takarraran hasi naiz.

• **Olinpiada edo txapelketaren batean hartu duzu parte?**

Oraingoz Oñatin eta Arrasaten antolatutakoetan egon naiz. Aurten



ere, maiatza edo ekaina inguruan ospatuko diren antolatutako dut parte. Oso esperientzia ona izateaz gain, lagun berriak egiteko ere aukera aproposa da.

• **Zeintzuk dira gimnasia praktikatzearen alde onak eta txarrak?**

Txarrak? ez dago. Alde onak, aldiz, ugari; lagun oso onak egiten direla, forman egoten laguntzen duela, eta batez ere denbora pasatzeko dagoen gauzarik onena dela.

• **Bukatzeko zein da zure talde edo jokalaririk gustokoena?**

Furbolean, Alavés, Erreala eta Bartzelona gustatzen zaizkit. Herri mailan UDA, nola ez! Kirolari bat aukeratzea oso zaila iruditzen zait, bat aukeratzekotan Retegi eta herri mailan Joseba Larrinaga.

Nesken futbol partidua

Urtarrilaren 10ean, larunbata, jadanik desagertutako UDA-ko nesken futbol taldeko partaide ohiek partidu interesgarria jokatu zuten. Bertan "Beteranak" eta ez hain "Beteranak" elkartu ziren, beraien arteko indarrak neurtu, eta era berean ondo pasatzeko asmoz. Esan beharrik ez dago, entrenatzailearen hutsunerik ez zela egon.

Aurreko urteetako momentu onenak gogoratu ondoren, aukera ezin hobea iruditu zitzairen afaria egitea eta berriz ere galdutako indarra berreskuratzea. Eta ondo merezita gainera!

Tontorrerako bigarren saioa

Bertan behera utzi zuten Manaslura igotzeko ahalegina martizenean Inñurategi anaiek eta Josu Bereziartuak. Häize zakarrak gailurrerako saiakera eragotzi zien eta beheko kanpamendura jeitsi ziren. Datorren astebukaera arte atzeratu dute 8.163 metrotako Manaslura mendira igotzeko ahalegina.

Zaraia Mendi taldea

Zaraia Mendi taldeak urteko batzar orokorra egingo du hilaren 23an. Bertan, besteak beste, batzordekiak berriztuko dira. Arratsaldeko 7,30etan izango da Zaraiako lokalean.

 *Neguko kirol erropetan materiale teknikoak*

Esko Sport

Orain beherapenetan Zatoz!

Intxaurtxueta, 5 ☎ 71 52 96 Larunbat arratsaldetan
ESKORIATZA zabalik

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi, 1
☎ 79 71 69

MEMESA S.L.

Industriaren alde

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

San Blas egunerako prest

Otsailaren 3an ospatuko den San Blas egunaren atarian gaudela eta, nork edo nork sukaldaritzan bere trebetasuna neurtu nahi izanez gero, hona hemen egun honetako ohitura den "San Blas Torta"ren errezeta.

OSAGAIK

- 6 Arraultza
- 1 Kgr hirin
- 1/2 Kgr. azukre
- 200 gr. gurin
- 200 gr. txerri-gantza
- 2 legami koilarakada
- Anis esentzia
- Limoia/Azukrea "glass"eran

JARRAITU BEHARREKO PAUSOAK

San Blaseko tortari hasiera emateko, gurina eta txerri-gantza nahasten dira, behin eta berriz, pomada eran gelditu arte irabiatuz. Jarraian, gainontzeko osagaiak; arraultzak, hirina, azukrea, legamia eta anis esentzia gehitzen zaizkio, guztiarekin ore bat eginez.

Orea guztiz landuta dagoenean, pausatzen usten da. Ondoren, arrabolarekin zabal-zabal egin eta norberaren gustoko den neurrira moztu.

Oinarriaren gainaldeko ore zuria egiteko, zuringoa, glass azukrea eta limoia nahasten dira, hau ere, zuri-zuri gelditu arte irabiatuz. Prest dagoenean, oinarriari gehitzen zaio, laban sartzeko prest dagoelarik.

"San Blas Torta"egiteko trikimailu edo sekreturik ez dagoela adierazi du "Izozkitegiko" Josu Uribarrenek, elkarren artean bereizten dituen gauza bakarra kanpo itxura dela ziurtatuz.

OHITURAK:

Honekin bat datorren beste ohitura bat ere bada Aretxabaletan, eztarikoa gaixoak sendatzeko, Sailluenteko ermittan egiten den janarien bedein-kapena, hain zuzen ere.

Aurreko urteetan bezala, aurten ere meza egongo



da goizeko 11:00etan, egun hau ospatu eta aipatutako bedeinkapenak egin asmoz.

Sailluente ermittaren inguruko hainbat datu:

III.mendean S. Laurentis bizi izan zen, baina jendeak izen hau euskeratu nahi zuenez, Sailluente izena jarri zitzaion, S. Laurenti eta S. Lorenzo izenen konbinaketa bat izanik. Bestalde, San Blas eguna ospatzeko erabiltzen den ermita honek, baditu lurrean lau harlausa landu, garaiko baserri-tarren hilobiak izango zirenak; (gaur egun hutsik dauden arren).



MIREN

*Etxanak eta berrietasunak
salneurri bereziak*

Murubide, 1 ♦ 79 67 97

Frutan eta txarkuterian
espezialitatea

Angelines
AUTOZERBITZUA

Mitarte, 16 • 79 61 42

REGIADO

optika

Loramendi, 10
☎ 79 93 21

Etxabe
harategia

Durana 4
☎ 79 16 61



H

ona hemen herriko koruaren beste argazki bat, 1965eko ekainaren 17koa dugu. Egun hartan lehengo maristen eskola zaharrean kantatu zuten argazkiko neska-mutilek. Ekitaldi garrantzitsua herriko hainbat lagunek eskaini zuten “Mutilzahar” antzerkia izan zen eta honen atsedendian koruak abestu zuen.

Antzerki emanaldia antolatzeko ez zen arrazoi berezirik egon. Hasiera batean, herrian bertan egitea zen asmoa, baina Don Angelek lokalak behar bezalako baldintzak betetzen ez zituela eta, horretarako baimenik eman ez zuenez, Almeneko maristen edifizio zaharrean egin zen. Erretratuko koruak hiru kantu abestu zituen: “Kukurruku”, “Kaiku-kaiku” eta beste hirugarren kantu bat.

Argazkiko neska-mutilek lehen aldiz abestu zuten elkarrekin. Ez zen herriko korua, garai hartan ia desagertuta baitzegoen. Juan Luis Izagirrek, orduan Almeneko zuzendariak, koruan ibilitako neska-mutilak elkartu zituen aipatutako ekitaldirako, argazkian dagoen Jose Bengoak azaldu digunez.

Argazkian ezkerretik eskumara: **Angel Mari Barandiaran, Francisco Zubizarreta, Alberto Uribeberria, Pablo Gaztañaga, Jabier Zabala, Jose Bengoa, Roberto Urreta, Jose Antonio Iturricastillo, Xabier Zubizarreta.**

Behean: **Arantxa Garai, Begoña Lizarralde, Mentxu Madinabeitia, Rosita Bernal, Begoña Urzelai, Maribel Iturbe, Socorro Unanue, Juanita Jauregi, Maribel Antxia, Begoña Eraña, Lurdes Zubia, Nieves Arana.**

Zuzendaria: **Juan Luis Izagirre.**

Argazkia: Juanita Jauregi.

Informazioa: Jose Bengoa, Pablo Gaztañaga, etabar.



LANA

◆ REMeko 3. mailako giza-zientzia arloko matematikak emateko pertsona behar da. Deitu 79 71 32 telefonora.

◆ Pertsona bat, emakumea hobe, behar da ordu batzutan umeak zaintzeko. 79 67 26.

◆ Emakume euskalduna behar da ume bi zaintzeko (arratsaldeko 8etatik aurrera deitu 77 11 85 telefonora).

Lanpostu publikoak

◆ Aretxabaletako Udalak **hirigintza teknikari lanpostua** kaleratu du. Epe finkorako. Erdi mailako titulazioa. Epea urtarrilak 29.

◆ **Gipuzkoako Foru Aldundia: Gizarte Zerbitzuen Gestio Teknikaria.** Titulazioa: Enpresan Diplomatu.

◆ **Programa Espezializatuen Gestio Teknikaria** Titulazioa: Diplomatu.

◆ **Kontratazio eta aurrekontu gestiorako teknikaria.** Titulazioa: Enpresan Diplomatu.

Aurkezteko epea: BOEn argitaratzeko zain.
Oinarriak: GAO, 97/12/24



Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.



ETXEBIZITZA

◆ Garaje bat salgai dago Murubiden. Prezio onean. Telefonoa: 79 86 12 (Arratsaldeko 7etatik aurrera).

◆ Pareja batek etxebizitza erosiko luke Portasolen. 79 04 62. Mari Josegatik galdetu.

◆ Urtarrilaz geroztik Zuhaitz taberna alokatzen da Leintz Gatzagan. 71 41 21.



LEHIAKETAK

◆ **Logotipo lehiaketa**
Aretxabaletako Gazte taldeak logotipo lehiaketa antolatu du. Logotipoan "Atxabaltako gazte taldea" hitzak edo AGT siglak agertu beharko dira. Aurkezteko epea otsailaren 6a da. Lanak Ezkutu tabernan sobre batean egilearen izen-abizen eta telefono zenbakiarekin aurkeztu beharko dira. Din-a 4 neurrian. Sari banaketa otsailak 8an.

◆ **Kartel lehiaketa**
Arrasateko Udalak Martxoak 8 egunerako kartel lehiaketa antolatu du. Lehiaketan edozein pertsonak har dezake parte eta teknika librea izango da. Kartelak honako testua izan beharko du: **Martxoak 8: danok batera.** Kartelaren neurriak gehienez: 50X70 zm. Saria 50.000 pezeta. Epea: Otsailaren 18a. Udaletxeko emakume sailera bidali behar da.



DENETARIK

◆ Urtarrilaren 10ean, larunbata, Untzila eta Aretxabaleta bitartean "Alan CT180" irrati transmisorea galdu nuen. Aurkitu duenak deitu mesedez 79 41 57 telefonora.

◆ Karreterako bizikleta salgai. Egoera onean. 79 29 12 (denda-koro ordutegian deitu).

◆ Afiela aurkitu zen jubilatuen egunean. Interesatua udaletxeko gizarte zerbitzutik pasa dadila.



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA



Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Komunikabideen munduan



Beste batzutan moduan gaurkoan ez naiz eguraldi kontuekin hasiko, aurreko alean idatzi nuenaz berba egin gura nuke lehenik. Batzuk oso haserre zeudela jakin dut, orain hamabost egun txoko honetan idatzi nuen zati batekin. Egia esan, publikoarendako idazten dugunok, ez dugu beti denon gusturako idazten. Beharbada, berba desegokia erabili nuela onartu beharra daukat, "deskuidotxoak" beti izaten ditugu kazetaritza mundu honetan gabiltzanok. Dena dela, zerbaitetaz ohartu naiz behintzat, nire txoko hau oso irakurria dela. Horregatik irakurle jator, ez-ohiko sarrera honen ostean neureari ekingo diot.

Kazetarien mundua aipatu dut sarreran, eta egia esan Aretxagazetan ere kazetariak etorri eta joan dabilta. **Rosa Mondragonek** "TU Lankide" aldizkarian jarraituko ditu kazetari lanak eta

beronen postua **Amaia Gaztañagak** beteko du Aretxagazetan. Bati ongi etorria eman eta besteari zorte ona opa diogu kooperatiben aldizkarian. Aldizkarian ez baina Egin egunkarian, bestalde, **Dorleta Agirre** eta **Arantzazu F. Arroiabe** korrespontsal berriak dira. Badakizue, beraz, notiziak emateko norengana zuzendu aurrerantzean.

Beste batzuk ere idazten abilak direla erakutsi dute oraingo honetan. Irakasle eskolako **Julen Arexolaleiba**, **Marian Bilbatua**, **Jesus Garmendia**, **Matilde Sainz** eta Kurtzebarri eskolako **Resu Abasolok** egin duten "Esaizu" testu-liburuak Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak banatzen duen Isacc Lopez Mendizabal saria jaso du.

Liburu kontuetatik telebistara egingo dugu salto. Hemen ere atxabaltar bat ikusteko aukera izan genuen ETBko Kili-Kolo saioan. **Mikel Arroiabek** galderak txukun erantzun zituen lehenengo saioan eta irabazle izan genuen gainera, bigarreanean ezin izan zuen aurrera pasa. Ziur naiz naturako galderak behintzat zuzen erantzungo zituela.

Eta bukatzeko aste honetan protagonista izan dugun tanborra aipatu behar. Herriko ume guztiak tanborra jo eta jo ibili ziren martizenean. Hala ere, Donostiako tanborradan ere parte hartu zuen atxabaltar batek, **Ignacio Lopez de Armentia** jubilatuaren konpartsan ikusi genuen. Beti esaten dut atxabaltarrak munduko edozein lekutan topatu daitezkeela. Ondo izan.

EL DIABLO
DE LOS NÚMEROS
Hans Magnus Enzensberger
Siruela



El diablo de los números

Hans Magnus Enzensberger

Ilustratzailea: Rotraut Susanne

Siruela argitaletxea, 1997

Liburutegiko txokoa

Robert matematikak gorrotatzen dituen haur bat da, beste asko bezala, baina egun batez ametsetan zenbakien deabrua agertuko zaio eta honi esker zenbakien magiarekin disfrutatzen hasiko da.

Autore alemaniar honek 10 urteko bere alaba gogoan zuela idatzi zuen liburu hau, matematikak haur mordo batengan sortzen duen beldurrak uxatu eta gai hau ongi ulertuz, zenbakiekin gozatzeko aukera emanez. Liburuak arreta berezia eskatzen duen arren oso entretenigarria da. "El mundo de Sofía"-n filosofia erakusten ziguten bezala hemen matematikak erakusten zaizkigu, eta liburu harekin gertatu bezala, ziur asko interes gehiago sortuko du helduen artean, haurren artean baino (horregatik Udal Liburutegian nobelen sailean aurkituko duzu). Dena den 12 urtetik aurrera irakurtzeko moduko liburu bat duzue eta ziur asko matematikak ikasteko orduan oso lagungarri izango dena.

Joseba Lopez de Armentia

URTARRILA

30, 31, 32

5

23

egukotxa

PIRINEOTARA IRTEERA

Murrukixo M.E.ak Pirineotara irteera antolatu du. Irteera Panticosara izango da eta bertako refugioan lo egingo da. Mendi irteera edo eskiko trabesia egiteko aukera dago. Izen emateko azken eguna urtarrilaren 27a, martizena, da. Ikasle eta langabetuentzat dohain.

EGIN-eko BATZARRA

Bi gai landuko dira. “Bideoa: Egin 20 urtez” eta “Egin-en gaurko egoera”. Gaueko 10etan Urbaltz elkartearen. Aretxabaletako Hitz egin komiteak antolatuta.

25

domeka

OTSAILA

3

martizena

FINALISTEN EGUNA

Zaraia M.T.ak Finalista eguna antolatu du Mendiola Burun. Bertan, urtean zehar mendian Km gehien egin dutenak sarituko dira. Goizeko 11etan.

SAN BLAS EGUNA

Goizeko 11etan meza Saluenteko ermitan. Janari eta erramuak bedeinkatuko dira bertan.

4

eguaztena

SANTA AGEDA BEZPERA

Santa Ageda mutilak baserrietan egingo dute batzea.

eguna

SANTA AGEDA EGUNA

Santa Ageda mutilak kalean egingo dute batzea. Arratsaldeko 7etan plazan dantzatuko dute.



15

domeka

KONTZERTUA

Guridiren “El Caserio” opereta eskainiko digute Aretxabaletako eta Azpeitiako abesbatzek. Bost solista izango dira, horien artean bi atxabaltar, Mariatxen Urkia eta Mari Karmen Etxeandia.

Z
I
N
E
A



ZUZENDARIA: Pedro Almodovar.
AKTOREAK: Javier Bardem, Francesca Neri, Liberto Rabal, etabar.

Carne trémula

Pedro Almodovarren 13. pelikulak maitasuna eta drama tartekatzen ditu. Gau batean, hiru gizon, Italiako kontsulak Madrilen duen etxeko atarian elkartuko dira. Etxean kontsularen alaba dago, heroina txute bat ekarriko dion gameluarèn zain.

Victorrek (Rabal) ez du suerte haundirik izan bizitzan eta Elena (Francesca Neri) bere lagunaren etxean dagoenean, ondorio larriak izango dituen istilu bat gertatuko da bi poliziarekin...

IKASTARROAK

ALBOKA IKASTAROA

Arrasaten urtarrilaren 17tik San Juanak arte. Zapatu goizetan. Hiru txanda: 10-11, 11-12, 12-13.

Arrasate musikalen hastapen eta sakontze mailak. Matrikula 3.000 pta/1.500 ikasle edo langabetuek. Izen emateak gazte bulegoan: 77 00 65.

DANTZA KARIBEARRAK

Arrasaten, salsa, merengue eta bachata, astelehen eta asteazkenetan 7,30etatik 9,30etara. Musakolako saloian. Matrikula: 4.000 pta/2.500 ikasle eta langabetuentzat.

Hastapen maila:

urtarrilaren 19tik otsailaren 18ra.

Sakontze maila:

Otsailaren 23tik martxoaren 25era. Izen emateak gazte bulegoan: 77 00 65.

TXALAPARTA IKASTAROA

Arrasaten urtarrilaren 30etik San Juanak artean. Musakolako saloian hastapen eta sakontze mailak emango dira. Matrikula: 2.000 pta. Ostiraletan izango da arratsaldeko 8etan. Izen emateak gazte bulegoan: 77 00 65.

KINTO AFARIA

1950eko urtarrila eta 1951ko otsaila bitartekoen urteroko kinto afaria. Taberna Berrin gaueko 9etan. Izenak bertan eman behar dira astebete lehenago. Dantzan egiteko prest! Animatu zaitzete.

Anzoetako mezak:

Urtarrila (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.
- Koruetan 12etan.
- Arkarazon ordu 1etan.

Otsaila (domeka guztietan)

- Galartzan 11etan.
- Larrinon 12etan.
- Mendiolan ordu 1etan.

Z A R A I A Z I N E M A

Urtarrilak 23, 24, 25, 26

CARNE TREMULA

Urtarrilak 25 (Umeentzat)

MI COLEGA DOUNSTON

Ordutegia:

Eguakotxa-zapatua: 10,15
Domeka: 5etan (Umeen sesioa)
7,30
10,15
Astelehena: 10,15



BEHARREZKO
TELEFONOAK

Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkartea	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Kurzebarri BHI	79 57 40
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa	902 10 12 10
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00

Arantxa Garai



“Txikitatik izan dut kanturako zaletasun haundia”

Etxean, lanean, koruan... leku guztietan aurkitzen du Arantxak kantatzeko aukeraren bat. Gazte-gaztetatik kantatzeko afizioa izanik, herriko koruan hasi zen eta bertako partaide da gaur egun ere. Guridiren “El Caserio” operetarako entsaiatzen ari denean, bete-betean harrapatu dugu.

Urte luze hauetan zer eman dizu koruak?

Momentu on eta pozgarri asko. Oroitzapen oso onak ditut, egin ditugun hainbat irteera, koruko entsaioak, etabar.

• Zer du ona kantatzeak?

Erlajatzear gain entretenitu ere egiten du. Oso gustora nabil koruan.

• Zein da zure ahotsa?
Sopranoa.

• Zer behar da koruan ibiltzeko?
Gogoia, belarria eta ahotsa. Solfeoa jakin ezkeru hobe.

• Nola ikusten duzu gaur egungo abesbatza?
Gazteak kanpora joan dira ikastera eta alde horretatik hutsunea nabari da.

• Korutik aparte kantatzen duzu?
Bai, etxean, lanean.

• Gustoko abesti bat?
Mocedadesen “Donde estás corazón”.

• Zein musika mota duzu gustokoen?
Habanerak. Mexikarrak ere bai. Musika lasaia gustatzen zait.

• Guridiren “El caserio”ren entsaioak zer moduz doaz?
Ondo, baina oraindik asko entsaiatu beharra dugu. Batzutan Azeptian eta beste batzutan hemen entsaiatzen dugu. Baserritar jantziko gara eta polita irtingo da.

• Kantuaz gain beste afiziorik?
Sukaldeko lana gustatzen zait, janariak prestatzea.

• Zein jaki eder prestatuko zeniguke?
Fritoak, piper beteak, okurritzen zaidan dena egiten dut.

• Biziorik?
Jatea. Ez naiz gozozalea, gatzalea gehiago.

• Beherapenetan erosten duzu?
Batzutan bai, baina aurten ez.

• Gutxien gustatzen zaizun etxeko lana?
Hautsa kentzea.

• Telebistan zer ikusten duzu?
Astean zehar informatiboak ikusten ditut, astebukaeretan denetarik.

• Zein pelikula mota duzu gogoko?
Dramatikoak, bakeradak, etabar. Misteriozko eta akziozkoak ez zaizkit gustatzen.

• Egungo momenturik onena?
Bazkalordua.

• Zer egiten duzu denbora librean?
Ortuan pasatzen dut denbora.

• Zelako pertsonalitatea daukazu?
Zabala eta espontanea naiz.

• Zer baloratzen duzu pertsonengan?
Naturalak eta nobleak izatea.


• Zer botatzen duzu faltan herrian?
Kanpoko piszinak.

• Eta bukatzeko, hamabost egunetako oporrak izan ezkeru, zer egingo zenuke?
Benidorrera joango nintzateke.

KOMIKIA

EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe



TABERNA eta JATETXEEN GIDA

Arlutz taberna



Gustoko musika

Mitarte, 16 • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 32 34

Kixkor taberna

KIXKOR
taberna.

Mitarte, 13 • ARETXABALETA
☎ 79 20 60

Gurea taberna

Jatetxea
eta taberna
GUREA

Eguneko menuak

Durana kalea • 79 20 64

Josu harategia

- Urdaitegia-Gozotegia
- kroasantegia
- Gertatutako janariak

Josu Harategia

Mitarte, 1 • ARETXABALETA
Tfnoa: 77 03 08

Taberna Berri



*Taberna Berri
jatetxea*
Durana, 26 • ARETXABALETA
☎ 79 20 67

Zaraia taberna

**MANTEKA
ANAIK**

*Goizeko 5,30etatik
zurre zerbitzuan*

Araba Ibilbidea, 20 • 79 88 95

Bedarreta taberna

Bedarreta

Beti bezeroen zerbitzura

Otalora, 19 ♦ Tfnoa: 79 20 89

Baster alde jatetxea



Sasoiko
jakiak
giro
onenean

Galartza auzoa
☎ 79 24 58
ARETXABALETA

Goyaran erretegia




GOYARAN ERRETEGIA

♦ Parrila espezialitatea

Solohaundi-8 ARETXABALETA
☎ 79 68 57

Haizea taberna



Mitarte, z/g • ARETXABALETA
Tfnoa: 79 85 57

Ezkutu taberna



Mitarte, 9 • ARETXABALETA
☎ 79 92 01

Basabe jatetxea

*Menu eta
afariak*

**BASABE
JATETXEA**

Basabe poligonoa • 79 91 84

Mendiola erretegia



♦ Bazkari
eta afariak

Astelehenetan
itxita

Mendiola auzoa • Eskoriatza

Express akeitegia

**Express
akeitegia**

Zurre gustoko giroa

Santa Kurtz, 16
ARETXABALETA ☎ 79 23 43

Amets taberna

AMETS

taberna eta kafetegia

Iparagirre, 4 • 79 01 29
Aretxabaleta

FORD GALAXY BERRIA

ORAIN TDI 110 CV
3.375.000 PTA.TIK AURRERA



Jarlekuen konfigurazioa



*Umeentzako segurtate
jarlekua*



Ardaba Etorbidea, z/g • ARRASATE
Tel: 79 07 44 / 54
Faxa: 79 62 54

MUGARRI